

INDONESIAN, INDONESIO, INDONÉSIEN

Language family: Austronesian, Malayo-Polynesian, Western Malayo-Polynesian, Sundic, Malayic, Malayan.

Language codes:

ISO 639-1 id

ISO 639-2 ind

ISO 639-3 ind

Glottolog: indo1316.

Beste izen batzuk (autoglotonimoa: bahasa indonesia):

baba indonesian alt indonesian, peranakan [PEA].

bahasa indonesia alt indonesian [INZ].

chinese indonesian alt indonesian, peranakan [PEA].

indonesian [INZ] hizk. Indonesia (Java eta Bali); baita AEB, Herbehereak, Filipinak, Saudi Arabia, Singapur ere.

indonesian, peranakan [PEA] hizk. Indonesia (Java eta Bali).

peranakan alt indonesian, peranakan [PEA].

INDONESIA (Java eta Bali)

indonesian (bahasa indonesia) [INZ] 17.000.000-30.000.000 hiztun ama hizkuntza dutenak, 140.000.000 baino gehiago 2. hizkuntzatzat dutenak, mintzatzeko eta irakurtzeko gaitasun mailen bariazioekin; herrialde guztietako populazio osoa 17.050.000-30.000.000; Indonesiako alde guztietan mintzatua; halaber mintzatua AEB, Herbehereak, Filipinak, Saudi Arabia eta Singapurren ere. Austronesian, Malayo-Polynesian, Western Malayo-Polynesian, Sundic, Malayic, Malayan. Informatu da Sumatraren ipar-ekialdeko Riau Malay-n eredutzat hartua dagoela; aldaera erregionalak; % 80 baino kognatu gehiago malay estandarrarekin; hizkuntza nazionala; gramatika; idazkera latindarra eta arabiarra.

indonesian, peranakan (chinese indonesian, baba indonesian, peranakan) [PEA] milaka asko hiztun (1981, Wurm and Hattori). Javaren ekialde eta erdialdea; kreolera, indonesieran oinarritua; indonesiera eta javaeran oinarritua; mandarinerazko elementuak ditu, baba malaykorik ez bezala, zeinak hokkiar elementuak baititu; elebakarrak 70 urtez gorakoak; 17. mendearen hasieran garatua behe malaya mintzatzen zuten txinatar merkatarien

artean, javatar emakume batez ezkondu zen Fukienen bidez.

Hizkuntza / lengua: indonesiera / indonesian / indonesio / indonésien.

Hiztunak / hablantes (2001): 38.842.000 hiztun ama hizkuntza dutenak, 190.000.000 bigarren hizkuntza bezala nolabaiteko gaitasuna dutenak barne (Rafael del Moral).

Herrialdea / país: Indonesia (24.960.000), Malaysia (11.000.000), Brunei (147.000), Singapur (455.000), Tailandia (2.250.000), Australia (30.000).

HISTORIA. Malaio-polinesiar familiako hizkuntza austronesikoa, Indonesian erabilia, non 1930az gero deitzen zaion *bahasa indonesiarra*, eta halaber Malasian erabilia, non duela hainbat mende deitzen zaion *bahasa malasiarra*, nahiz eta biak hizkuntza bera izan ezberdintasun txiki batzuekin. Sanskritoz *bhasah* hitzak "hizkuntza" esan nahi du eta *malayu-k* "mendia". Minankabauera eta ibanoera ere adar berekoak dira.

Hizkuntzaren jatorria Sumatraren mendebal eta Borneoren ekialdearen artean kokatu ohi da. Uste denez, K.a. 2. milurtean iritsi zen jendea haruntza Filipinetatik eta Taiwanetik. Lehenengo testuak VII. m.koak dira. XII. m.ra arte, hindueraren eraginaren garaia, malaioera izan zen administrazio-hizkuntza eta arabiar dominazioan ere halaxe izan zen. XX. m.aren hasieran nederlandera nagusitu zen, baita administrazioan, unibertsitatean eta komunikabideetan ere. 1928an eta Bataviako konferentzian, honen hazkundeari galga bota zioten malaioeraren oinarriak hartuz, hau baitzen Indonesian zabalduen eta gehien ulertua.

HIZKUNTZA. Ezaugarri nagusiak.

Fonetika. A) Ahoskera garbi eta sinplea dauka, sistema bokaliko eta kontsonantikoa mendebaldeko indoeuropar hizkuntzen oso antzekoak direlarik. **B)** 1947an *oe* fonemaren ortografia aldatu zen *u* bihurtuz. 1972an sistema ortografikoari hainbat aldaera egin zitzaion: *ch* > *kh*, *dj* > *j*, *j* > *y*, *nj* > *ny*, *sj* > *sy* eta *tj* > *c*. **C)** Lau digrafo daude: *ng* (eng), *ny* (nye), *kh* (kha) y *sy* (sya). Azken biak jatorriz arabiarrek diren hitzetan erabiltzen dira. *q*, *v*, *x*, eta *z* Europa eta Indiatiko mailegutan erabiltzen dira. **D)** Azentua leunki azken aurreko silabak hartzen du eta batzuetan azkenak (e laburrean erortzen bada).

Morfosintaxia. A) Ez du deklinabiderik ez eta genero eta numero morfemarik ere, eta oso flexio gutxiko hizkuntza da. Ulertzeko beharrezkoa denean, hitza errepikatuz egiten du plurala. **B)** Aditzak ez dira jokutzen. Denborak eta aditzari dagozkion beste morfema batzuk hitz laguntzailez adierazten dira aurrean jarrit. **C)** Perpausaren ohiko ordena Subjektua + Aditza + Osagarriak dira. **D)** Joskera sintaktikoan nahiago du justaposizioa subordinazioa baino. **E)** *Gu* izenordain inklusiboa eta eksklusiboa bereizi egiten ditu. **F)** Polinesiar hizkuntzen seinalea diren artizkien erabilpena galdu egin du. **G)** Arabiar eragina bai lexiko erlijiosoan bai eta zibilean ere agertzen da. Nederlandarren eta portugesearen maileguak nabarmentzekoak dira eta sanskritotik jasotakoak gutxiago. **H)** Hona hemen indonesieraz lehenengo 10 zenbakiak: *satu* (1), *dua* (2), *tiga* (3), *empat* (4), *lima* (5), *enam* (6), *tujuh* (7), *(de)lapan* (8), *sembilan* (9), *sepuluh* (10).

Idazkera. Latindar alfabetoa eta baita alfabeto errumia eta arabiarra ere (testu erlijiosoak).

HISTORIA. Lengua austronésica de la familia malayo-polinesia, al servicio y uso de Indonesia, donde se llama desde el año 1930 *bahasa indonesia*, y de Malasia, donde se llama desde hace siglos *bahasa malasia*, aunque ambas son la misma lengua con escasas diferencias. En sánscrito, *bhasah* significa "lengua" y *malayu* "montaña". El minankabau y el ibano son lenguas de la misma rama.

El origen de la lengua se sitúa entre el oeste de Sumatra y el este de Borneo. Se piensa que sus habitantes llegaron allí hacia el segundo milenio a. C desde las islas Filipinas y desde Taiwan. Los primeros textos datan del s. VII. Hasta el s. XII, época de la influencia hindú, fue el malayo la lengua de la administración y siguió siéndolo durante la posterior dominación árabe. A principios del s. XX ganó terreno el holandés, incluso en la administración, en la universidad y en los medios de comunicación. En la conferencia de Batavia de 1928 se puso freno a ese crecimiento al promulgar como ideal las bases del malayo, que era la lengua más extendida y comprendida en Indonesia.

LENGUA. Principales características.

Fonética. A) Fonética de pronunciación clara y simple con un sistema vocálico y consonántico bastante cercanos a los de las lenguas indoeuropeas occidentales. **B)** En 1947 la ortografía de *oe* se cambió a *u*. En 1972 al sistema ortográfico se le aplicó un grupo de cambios oficiales: *ch* en *kh*, *dj* en *j*, *j* en *y*, *nj* en *ny*, *sj* en *sy* y *tj* en *c*. **C)** Hay 4 dígrafos: *ng* (eng), *ny* (nye), *kh* (kha) y *sy* (sya). Los dos finales sólo aparecen en palabras de origen árabe. Las letras *q*, *v*, *x*, y *z* se usan en préstamos procedentes de Europa e India. **D)** El acento recae moderadamente en la penúltima sílaba, que en algunos casos puede pasar a la última (cuando recae en una *e* breve).

Morfosintaxis. A) Ajena a las declinaciones y a los morfemas de género y número, es lengua parca en flexiones. Cuando se hace necesario para la comprensión, se marca el plural mediante la duplicación de la palabra. **B)** No se conjugan los verbos. Los tiempos y otros morfemas propios del verbo se señalan mediante palabras auxiliares colocadas con anterioridad. **C)** El orden habitual de la oración es Sujeto + Verbo + Complementos. **D)** En la relación sintáctica prefiere la yuxtaposición a la subordinación. **E)** Distingue los pronombres entre un *nosotros* inclusivo y otro exclusivo. **F)** Ha abandonado el extendido uso de los infijos, propio de las lenguas polinesias. **G)** La influencia árabe se deja notar tanto en el léxico religioso como civil. Los préstamos del holandés y portugués son destacables y menos los del sánscrito. **H)** Los 10 primeros números en indonesio son: *satu* (1), *dua* (2), *tiga* (3), *empat* (4), *lima* (5), *enam* (6), *tujuh* (7), *(de)lapan* (8), *sembilan* (9), *sepuluh* (10). **Escritura.** Alfabeto latino, puede encontrarse en alfabeto rumi y también en árabe (textos religiosos).

GRAMATIKAK, METODOAK, ESKULIBURUAK

INDONESIAN GRAMMAR MADE EASY, Times learn indonesian, Liaw Yock Fang, 18,5x13, 294 or., Kuala Lumpur, **2001**.

HIZTEGIAK ETA LEXIKOAK

INDONESIO - ESPAÑOL Y VICEVERSA, 1. edizioa, P. Nieto, Editorial Sísifo, 14,5x10,5, 327 or., Barcelona, **1999**.

INDONESIO - ESPAÑOL Y VICEVERSA, 3. errebisioa, P. Nieto, Editorial Sísifo, 14,5x10,5, 327 or., Barcelona, **2001**.

SPANYOL-INDONESIA, Milagros Guindel, Kamus Saku, 18x11, 394 or., Jakarta, **2002**.

INDONESIAR ALFABETOA

INDONESIAN ALPHABET

Indonesiar alfabetoa / Indonesian alphabet

A a	B b	C c	D d	E e	F f	G g	H h	I i	J j	K k	L l	M m
a	be	ce	de	e	ef	ge	ha	i	je	ka	el	em
N n	O o	P p	Q q	R r	S s	T t	U u	V v	W w	X x	Y y	Z z
en	o	pe	ki	er	es	te	u	fe	we	eks	ye	zet

Indonesiar ahoskera

Indonesian pronunciation (Cara Pengucapan)

Vowels & Diphthongs

a	e	i	o	u	ai	au	oi
[a]	[ɛ,ə,e]	[i]	[o,ɔ]	[u]	[ai]	[au]	[oi]

Consonants

b	c	d	f	g	h	j	k	kh	l	m	n	ny
[b]	[ç]	[d]	[f]	[g]	[h]	[dʒ]	[k]	[x]	[l]	[m]	[n]	[ɲ]
ng	p	q	r	s	sy	t	v	w	x	y	z	
[ŋ]	[p]	[k]	[r]	[s]	[ʃ]	[t]	[v]	[w]	[ks]	[j]	[z]	

Testu-lagina / Sample text

Semua orang dilahirkan merdeka dan mempunyai martabat dan hak-hak yang sama. Mereka dikaruniai akal dan hati nurani dan hendaknya bergaul satu sama lain dalam semangat persaudaraan.

Itzulpena / Translation

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute.

(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 1. artikulua)

All human beings are born free and equal in dignity and rights. They are endowed with reason and conscience and should act towards one another in a spirit of brotherhood.

(Article 1 of the Universal Declaration of Human Rights)